



## **IGERIKETA ARTISTIKOAREN ARAUDIA - ALDERDI OROKORRAK**

### **2021-2022 DENBORALDIA**

#### **1.- LEHIAKETA AUTONOMIKOAK**

Igeriketa artistikoko txapelketak Euskadiko Igeriketa Federazioaren (EIF-FVN) eta Nafarroako Igeriketa Federazioaren (FNN-NIF) arteko lankidetzeta-hitzarmenaren arabera antolatzen dira, igeriketa artistikoko arloen bidez, eta irekita daude beste klub edo federazio batzuek parte hartzeko, betiere Araudi Orokor hau edo txapelketa bakoitzeko berariazko araudiak betetzen badituzte eta igeriketa artistikoko bi arlo horien baimena badute. Haietan jasotzen ez den guztiari dagokionez, RFENen Araudi Orokorrari lotuko zaio. Euskal Herrian txapelketa hauek antolatuko dira:

- Euskal Herriko Haurren Figura eta Errutina Teknikoen Txapelketa.
- Euskal Herriko Haur, Junior eta Absolutu neguko Txapelketa.
- Euskal Herriko Udako Open Txapelketa.
- Gidak eta mailak.

#### **2.- ADINEN KATEGORIA**

Denboraldi honetarako, EIF-FVN eta FNN-NIFren antolakuntzan kategorია hauek egongo dira jaiotza-urte bakoitzeko:

- KIMUAK: 2010 eta ondorengoak (lurralde-federazio bakoitzarekin lortutako akordioen arabera)
- HAUR KATEGORIA emakumezkoak: 2007, 2008 eta 2009.
- HAUR KATEGORIA gizonezkoak: 2006, 2007, 2008 eta 2009.
- JUNIOR emakumezkoak: 2004, 2005, 2006 eta 2007.
- JUNIOR gizonezkoak: 2003, 2004, 2005, 2006 eta 2007.
- SENIOR: 2003 eta aurrekoak
- ABSOLUTUA: 15 urtetik gora, adin guztietarako (2007)
- MASTER: Adin guztiak, 18 urtetik gora (taldeko batez bestekoa, gutxienez, 25 urtekoa)

#### **3.- LURRALDEKO LIZENTZIAK**

Lurralde-lizentzia txapelketa egin baino 15 EGUN LEHENAGO tramitatu behar da eta, betiere, izena eman baino lehen. Hala gida eta mailetarako, nola txapelketetarako.



#### **4.- INSKRIPZIOA**

- a) Txapelketetarako inskripzio guztiek indarrean izan behar dute federazioaren lizentzia.
- b) Onartutako kategoriaren araberrako balorazio-maila duten kirolariek bakarrik eman ahal izango dute izena.
- c) Sistema informatiko baten bidez, ZENBAKIZKO AURREINSKRIPZIOA egingo da. Bertan, klubek gutxi gorabehera zenbat parte-hartzaile izango duten adieraziko dute, eta EZ DA ONARTUKO epez kanpoko aurreinskripziorik.
- d) Sistema horren bidez egingo dira azken INSKRIPZIO IZENDUNAK, eta EZ DA ONARTUKO epez kanpoko inskripziorik.
- e) Modalitate bakoitzean ez da onartuko bi solo, bi duo, bi konbinatu eta bi multzo baino gehiago inskribatzea.
- f) Inskripzioekin batera, entrenatzaileen eta ordezkarien inprimakia bidali beharko da (EIF-FVN eta FNN-NIFren web orrian dago dokumentazioa).
- g) Erakunde eskudunei (EIF-FVN eta lehiaketen antolatzaileak) protokolo horiek eskatzen duten lege- eta osasun-informazioa dagokien epeetan eman ezean, parte-hartzaileak ez dira inskribatuko edo txapelketatik kanpo geratuko dira.

#### **5.- PARTE-HARTZEA**

- a) Txapelketa bakoitzaren araudian zehazten da.
- b) Txapelketaren egoitzak bere Covid19 protokolo propioa izango du.
- c) Ez da lehiaketa bat deuseztatuko edo atzeratuko, baldin eta klub batek ezin badu bertaratu, bat-bateko osasun-arrazoiengatik edo Covid19arengatik aurreikusi gabekoengatik.
- d) Proba bakoitzeko preswimmer bat ofizialki inskribatu ahal izango da, eta lehentasuna emango zaie antolatzaileek aurkeztutakoei.
- e) Lehiatzaile batek baimena izango du solo, duo, multzo eta konbinatu batean igeri egiteko, bai errutina teknikoetan, bai errutina libreetan. Ezin izango du beste kategoria bateko modalitate berean parte hartu, azken urteko haur kategorian izan ezik.
- f) Klub batek multzo bat baino gehiago aurkezten badu, horietako bat behintzat 8 lehiakidek osatuko dute multzoan, eta gutxienez 8 lehiakidek konbinatuan.
- g) Ez da Solo librerik egongo ezein kategoriatan edo lehiaketatan.
- h) Ez da errutina konbinaturik egongo junior/absolutu kategorian, baina bai Highlight.
- i) Txapelketa hasi baino lehen, bainujantziak aztertuko dira. RFENen edo, horrelakorik ezean,



FINA erregelamenduan eskatzen diren gutxieneko baldintzak betetzen ez dituen parte-hartzailea txapelketatik alendu ahal izango da.

j) Gelatina-eremua kenduko da, eta errutinetarako nahitaezkoa izango da txanoa erabiltzea. Txano artistikoa izan daiteke, baina ez klubeko logotiporik duena.

k) Errutinak tariman prestatzeko, zorua ezin izango da ukitu oin-zola ez den beste zerbaitekin.

## 6.- ZOZKETAK

a) Figura-multzoen zozketa EIF-FVNn egingo da, FINA erregelamenduaren arabera, eta parte hartzen duten klub guztiei jakinaraziko zaie posta elektronikoz zein egunetan eta ordutan egingo den.

b) Figuren eta errutinen jarduera-ordenaren zozketak EIF-FVNn egingo dira, FINA erregelamenduaren arabera, eta parte hartzen duten klub guztiei posta elektronikoz jakinaraziko zaie zein egunetan eta ordutan egingo den.

c) Federazioek formatu elektronikoan bidaliko dute inskripzio guztien zozketan parte hartzeko ordenaren zerrenda.

## 7.- TXAPELKETEN EGOITZAK

a) 1. puntuan adierazitako lurralde-txapelketak egiteko egoitzak EIF-FVN eta FNN-NIFk eskatuko eta adjudikatuko dituzte, klub en eta interesa duten erakunde en eskaerak oinarritzat hartuta, abenduaren 31 baino lehen argitaratu ondoren. Txapelketaren bat egiteko egoitzarik ez badago, bertan behera utzi ahal izango da.

b) Txapelketen egoitzek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Igerileku osoa edukitzea.
- Igerilekua banatzea, igerilari entzako aurreberotze-eremua utzita, instalazioetan horretarako aukera badago.
- Errutinen kasuan, plataforma bat, instalazioetan horretarako aukera badago, ariketak hasteko, kartelik gabe.
- Banakako mahaiak eta aulkiak, txapelketako arbitro bakoitzarentzat.
- Lokala edo lekua, arbitro en eta ordezkarien alde z aurreko bilerarako.
- Musika-ekipoa eta megafonia, igerilekuaren instalazio barruan eta kanpoan.
- Dominak emateko irabazleen podiuma.
- Igerilarien txapelketa-eremua mugatzea.
- Gelatina berotzeko mikrouhinak.
- EIF-FVN eta FNN-NIFk garaiz eskatutako beste baldintza batzuk.



## 8.- TXAPELKETAREN FORMULA

- Araudi honetan agertzen ez diren kontu guztietarako, RFENen erregelamendua beteko da, edo, bestela, FINArena.
- Txapelketako saio bakoitzeko proba-programak aldatu ahal izango dira, inskripzioen kopuruak edo inguruabarrek hala eskatzen badute.
- Antolatzaileek ezin izango dute aldatu ez saio-kopurua ez txapelketa-saio bakoitzeko proba-programa; EIF-FVN eta FNN-NIFk bakarrik aldatu ahal izango dute.

## 9.- MUSIKA KONPOSIZIOA

a) Adin-taldeetan txapelketetan, ezin izango da erabili ez musikarik, ez multzoen eta konbinatuen koreografiarik, selekzio nazional absolutuak erabili badu. Txapelketako batzordeakt txapelketatik kanporatuko ditu hala egiten dutenak.

b) Txapelketa bakoitzean parte hartzeko erabilitako musika-konposizioak **txapelketa hasi baino BI ASTE lehenago** bidali beharko dira EIF-FVNra. Musika duen mezu elektroniko bat bidaliko da (fitxategi bakoitza bere aldetik) [info@eif-fvn.org](mailto:info@eif-fvn.org) helbidera, formula honekin:

Kategoria\_Proba\_Kluba\_Titular                    baten                    deitura;                    Adibidez:  
Junior\_LT\_Sincro.Maristas\_Zubizarreta)

LT=Lantalde Teknikoa

c) Federazioak musika-konposizio horiek emango dizkio klub antolatzaileari, behar den denboraz eta klubeko musika-aparatuan behar bezala dabilela ziurtatzeko.

d) Era berean, pendrive batean eramango da (bertan adieraziko da zein errutinari dagokion musika konposizio bakoitza) txapelketa ospatzen den egunean, eta Idazkaritzan aurkeztuko da.

## 10.- TXAPELKETAREN KONTROLA

a) EIF-FVN eta FNN-NIFk txapelketa -zuzendari bat izendatuko dute, txapelketaren arduradun.

b) Txapelketa Batzordea eratuko da eta honako hauek osatuko dute: - Txapelketaren zuzendaria, buru arituko dena. - Epaile arbitroa. - Parte hartzen duten taldeen entrenatzaile bat (klub bakoitzeko titularra), zozketaz hautatua. - Parte hartzen duten taldeen ordezkari bat (klub bakoitzeko akreditatua), zozketaz hautatua. - Arbitro bat (epaimahaikidea), zozketaz hautatua.

Entrenatzailea eta ordezkaria klub desberdinetakoak izango dira, eta txapelketa osoan egon beharko dute.

c) Txapelketa Batzordeak ebatziko du, hala behar izanez gero, Txapelketaren zuzendariak eskatutako erreklamazioak, eta haren erabakiak irmoak eta erabakigarriak izango dira.

d) Idatzizko erreklamazioei bazik ez zaio erantzungo, eta erreklamazioa aurkezten duen klubak berrogeita hamar euro (50 €) aurreratu beharko ditu.



e) Klub guztiek izan beharko dute Covid19 arriskuen prebentziorako ordezkari bat.

### **11.- TXAPELKETAREN EMAITZAK**

- a) EIF-FVNak txapelketaren ondorengo egunetan bidaliko dizkio emaitzak parte hartzen duen talde bakoitzari.
- b) Emaitzek fitxa tekniko bat izango dute, behar bezala betea, ondoren EIF-FVNen entregatzeko, artxibatu eta biltegira dezan.

### **12.- BALDINTZA EKONOMIKOAK**

Federazio bakoitzaren araudi ekonomikoaren arabera egokituko da.

### **13.- EPAIMAHAIA**

- a) Euskadiko epaileen mahaikideak izendatuko du, Igeriketa Artistikoaren arlokoak. Araudi bat ezarriko da, lehentasun-ordena batekin, txapelketetarako epaileak hautatzeko, eta haren baldintza guztiak bete beharko dira.
- b) Igerilari, entrenatzaile, delegatu edo ordezkari direnak, txapelketan parte hartzen duten klubetako baten ordezkari badira, ezin izango dira epaimahaikide izan, eta klub parte-hartzaileen arduradun nagusiak ere ez.
- c) Txapelketan, guztiz debekatuta dago epaimahaiko kideek komunikazioa izatea klub parte-hartzaileetako igerilari, entrenatzaile edo teknikariekin eta ikusleekin.
- d) Era berean, debekatuta dago igerilari, entrenatzaile, teknikari edo epaile batek jazarpena edo kritika suntsitzailea eta abusuzkoa egitea edota errespeturik ez izatea txapelketako postuak osatzen dituzten epaileekin, txapelketa barruan eta txapelketatik kanpo, baita lehiaketa amaitu ondoren ere.
- e) Arau horietakoren bat betetzen ez bada, kargu hartuko da eta zigor gisa ezin izango da hurrengo txapelketan parte hartu. Hiru kargu-hartze pilotuz gero, txapelketatik kanporatuko da eta ez da berriz onartuko EIF-FVN eta FNN-NIFek antolatzen dituen hurrengo txapelketetan edo ekitaldietan. Hori egin aurretik, EIF-FVN eta FNN-NIFeko presidentek eta federazio horietako Igeriketa Artistikoaren Arlo Teknikoko arduradunek bilera egin, eta jakinarazi beharko diote tartean den pertsonari, eta zehapen horren arrazoia eman beharko diote idatziz.
- f) Txapelketa baino lehenagoko eta ondorengo bilerak egingo dira, harik eta epaile nagusiak bilerak amaitzea erabakitzen duen arte, eta arbitro guztiek nahitaez joan beharko dute.
- g) Hala eskatuz gero, parte hartzen duten klubetako entrenatzaileekin bilera egingo da. Bilera horretan, arbitraje-estamentuak ikusitako alderdi orokorrei eta entrenatzaileen interesei buruz hitz egingo da, baina ez emaitza partikularrei eta puntuazioei buruz.



#### **14.- PUNTUAZIOAK**

a) Puntuazioak RFENen markaren arabera lortuko dira, FINA (AS.20.2) Erregelamenduari jarraiki.

#### **15.- SAILKAPENA**

- a) Txapelketa bakoitzaren sailkapena eta puntuazioa haren araudian zehaztuko dira.
- b) Bigarren taldeak eta hurrengoak ez dira puntuatuko klubaren arabera sailkapenerako.

#### **16.- SARIAK**

a) Txapelketa bakoitzaren araudian zehaztuko da.